



# MAIATZAREN LEHENA 2023 MANIFESTAZIOAK



## BILBO

11:30<sup>EAN</sup> JESUSEN BIHOTZA

## IRUÑA

11:30<sup>EAN</sup> GURUTZE PLAZA  
(PLAZA DE LA CRUZ)

MAIATZAREN  
LEHENA  
2023



# BORROKAN, IRABAZTEKO

+ PENSIONES + SALARIO = MEJORES VIDAS





**MAIATZAREN  
LEHENA**

**BORROKAN,  
IRABAZTEKO**

Maiatzaren Lehenean, ELAren lehentasuna soldata, pensio eta zerbitzu publiko hobeak lortzea da. Euskal Herriko milaka langile ohartu dira lan-prekarietateari gehitu behar izan zaizkiola bizitzaren garestitzearen ondorio latzak.

Langileek %15 gehiago ordaintzen dute oinarritzko elikagaiengatik, eta batez beste 3.600 euro gehiago urtean hipotekengatik; bankuek, oligopolio energetikoak eta elikadura-banatzaila handiek, berriz, aparteko irabaziak izaten ari dira. Prezioen igoera oso lotuta dago etekin horien igoerarekin. Bitartean, langile klasea pobrezia energetikoa eta oinarritzko eskubide sozialik eza (etxebizitzaren eskubidea, adibidez) pairatzen ari da.

### **KAPITALISMOA DA NAGUSI ERAKUNDEETAN**

Kapitalismoak erakunde publikoak menperatzen ditu, eta gobernuak ez dira gai horri aurre egiteko. Europako Banku Zentralak interes-tasak igotzen jarraitu nahi du, eta horrek ez du inflazioa murrizten; aldiz, biztanle gehienak pobretzen ditu (batez ere etxebizitza bat ordaindu behar dutenak). Prezioen kontrola bezalako neurriak ez daude Estatuko gobernuaren agendan.

Sistema kapitalista horretan, finantza-sektoreak gero eta indar handiagoa du, baina egiturazko arazoak dituenean, banku-erreskateak baliabide publikoekin ordaintzen dira (horretarako beti dago dirua), eta, gainera, irtenbide gisa aurkezten dira, bankuak zerbitzu publiko bihurtu beharrean.

### **ZERBITZU PUBLIKOekin KONPROMISORIK GABE**

Interes ekonomikoen menpe ere, Urkulluren eta Chiviteren gobernuak ez dute neurri garrantzitsurik hartu bizitzaren garestitasunari, etxebizitzari edo zerbitzu publikoen okertzeari aurre egiteko. Osasungintzan eta zaintzan inbertsiorik egin ez izana da konpromisorik ezaren erakusgarri nabarmenena.

Kalitatezko zerbitzu publikoak izateko eta herritar guztiei diru-sarrera duinak bermatzeko, beharrezkoa da zerga-politika errotik aldatzea, baina ez dute hori egin nahi.

### **EZKERRAK MURRIZKETAK IRAULI BEHAR DITU**

ELAk uste du aukera bat galdu dela Zapateroren Gobernuak, patronalak eta UGT-CCOOk 2011n sinatu zituzten pentsioen murrizketei buelta emateko. Orain ez bada, noiz?

Gainera, orain onartutako erreformak murrizketak dakartza, hala nola kalkulua egiteko behar diren urte kopurua handitzea, 50 urtetik beherako pentsioa jaitziko dutenak eta murrizketa gehiago egiteko bidea irekiko dutenak. Berri txarra da erreforma hau euskal alderdiek, eta areago, ezkerreko alderdiek ontzat eman izana.

### **GREBA, GAURKOTASUN HANDIKO TRESNA**

Europar greba uholdea gertatzen ari da. Frantziar Estatuko, Portugalgo, Alemaniako eta Erresuma Batuko sindikatuak soldaten eta pentsioen alde mobilizatzen ari dira. Grebak ez dira iraganeko gauza bat, batzuek errepikatzen duten bezala, gaurkotasun handiko tresna dira.

Euskal Herrian ere langile asko greban daude edo egon dira. Borroka horietan, soldaten defentsa zentrala da, eta genero-irakurketa argia du: patronalak gogor blokeatzen ditu emakumeek lan egiten duten hitzarmenak: zahar-egoitzak, etxe etxeko laguntza, merkataritza, ostalaritza edo garbiketa etengabeko borrokan ari dira.

Hitzarmen on bat ez da zerutik erortzen. Lan- eta bizi-baldintzak hobetzeak zerikusi zuzena du antolatze eta konfrontatzeko gaitasunarekin; hori da sindikatuaren eginkizun nagusia.

### **EZ ERRENTA-ITUNIK, EZ ELKARRIZKETA SOZIALERAKO MAHAIRIK; LORPENAK BORROKA SINDIKALETIK DATOZ**

ELA harro dago Euskal Herria greba-kopuruan buru delako. Horrela bakarrik ulertzen dira lortutako lorpenak eta beren baldintzak hobetu nahi dituen jendearentzat irekitzen diren aukerak. Greba horiek herrialde hobe egiten dute, lan eta gizarte baldintza hobeak dituen herrialde bat herrialde justuagoa delako, bizitza hobeak dituen.



**MAIATZAREN  
LEHENA**

**EN LA LUCHA,  
PARA GANAR**

La pelea por mejores salarios, pensiones y servicios públicos es la prioridad de ELA este Primero de Mayo. Miles de trabajadoras y trabajadores en Euskal Herria comprueban que a la precariedad laboral se han sumado ahora las duras consecuencias del encarecimiento de la vida.

Mientras las y los trabajadores pagan un 15% más por los alimentos básicos y una media de 3.600 euros más de media al año por las hipotecas, la banca, el oligopolio energético y las grandes distribuidoras de alimentación obtienen beneficios extraordinarios. El incremento de los precios está muy relacionado con el aumento de sus beneficios. Nunca han obtenido tantos beneficios, mientras que la clase trabajadora queda expuesta a la pobreza energética y a no disponer de derechos sociales básicos, como la vivienda.

### **EL CAPITALISMO DOMINA LAS INSTITUCIONES**

El capitalismo domina unas instituciones públicas que son incapaces de ponerle freno. El Banco Central Europeo se empeña en seguir subiendo los tipos de interés, lo que no reduce la inflación, sino que empobrece a la mayoría de la población (en especial a quienes tienen que pagar una vivienda). Medidas como el control de precios no están en la agenda del gobierno del Estado.

En este sistema capitalista el sector financiero gana cada vez más terreno, pero cuando vuelve a tener problemas estructurales, los rescates bancarios se pagan con recursos públicos (para esto siempre hay dinero), y además se presentan como una solución, en vez de convertir la banca en un servicio público.

### **SIN COMPROMISO CON LOS SERVICIOS PÚBLICOS**

También sometidos a los intereses económicos, los gobiernos de Urkullu y Chivite continúan sin tomar medidas de calado para hacer frente a la carestía de la vida, la vivienda o el deterioro de los servicios públicos. La falta de inversión en sanidad y en los cuidados es la muestra más evidente de esa falta de compromiso.

Para tener unos servicios públicos de calidad y garantizar unos ingresos dignos al conjunto de la población es necesario un cambio radical de la política fiscal al que se siguen negando.

### **LA IZQUIERDA DEBE REVERTIR LOS RECORTES**

ELA cree que se ha perdido una oportunidad para revertir los recortes en pensiones que el Gobierno de Zapatero, la patronal y UGT-CCOO firmaron en 2011. Si no es ahora, ¿cuándo?

Además, la reforma ahora aprobada contiene recortes como la ampliación de los años necesarios para el cálculo, que rebajarán la pensión de los menores de 50 años y abre la vía para más recortes. Es una mala noticia que esta reforma haya sido dada por buena por partidos vascos y mucho más por partidos de izquierda

### **LA HUELGA, UN INSTRUMENTO DE MUCHA ACTUALIDAD**

Europa vive una oleada de huelgas. Los sindicatos del Estado francés, Portugal, Alemania o el Reino Unido se están movilizandando en defensa de los salarios y las pensiones. Las huelgas no son una cosa del pasado como repiten algunos, son un instrumento muy de actualidad.

También en Euskal Herria muchas trabajadoras y trabajadores están o han estado en huelga. En esas luchas, la defensa de los salarios es central, y tiene una clara lectura de género: la patronal bloquea con especial dureza los convenios donde trabajan mujeres: residencias, ayuda a domicilio, comercio, hostelería o limpieza están en lucha permanente.

Un buen convenio no cae del cielo. La mejora de las condiciones laborales y de vida está directamente relacionada con la capacidad de organización y confrontación; esa es la función principal del sindicato.

### **NI PACTOS DE RENTA, NI MESAS DE DIÁLOGO SOCIAL; LOS LOGROS VIENEN DE LA LUCHA SINDICAL**

ELA está orgullosa de que Euskal Herria este a la cabeza en el número de huelgas. Solo así se entienden los logros conseguidos y las oportunidades que se abren para quienes quieren mejorar sus condiciones. Esas huelgas hacen un país mejor, porque un país con mejores condiciones laborales y sociales es un país más justo, con vidas mejores.